

Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 9koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, ur-ikuskarien, analisigileen eta proiektu hidraulikoen neurketako teknikari laguntzaile lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesuetako epaimahaiko kideak izendatzen dituen, merezimendu-lehiaketaren bidez uraren euskal agentziaren aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren bidez.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2022ko abenduaren 15eko EBAZPENAREN bidez, merezimendu-lehiaketaren bidez Uraren Euskal Agentzian aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren bidez lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorrak onartu ziren (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.).

Oinarri orokorren 10. atalean ezartzen denez, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak horretarako izendatuko ditu lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesuetako epaimahaietan parte hartuko duten pertsonak. Horretarako, salbuespenezko deialdia egingo da, uraren euskal agentzian aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT,

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziako ur-ikuskarien, analisigileen eta proiektu hidraulikoen neurketako teknikari laguntzaile lanpostuak behin betiko betetzeko hautaketa-prozesuetako epaimahaietan parte hartuko duten pertsonak izendatzea.

	Titularra	Ordezkoa
Lehendakaria	Josu Perea Arandia	Jose M ^a Sanz de Galdeano Equiza
Batzordekidea	Aitor Beldarrain Uriondo	M ^a Jose Guerrero Verdejo
Idazkaria	María López de Heredia San Julián	Aitziber Urquijo Luengo

Bigarrena. – Ebazpen hau argitaratzea Uraren Euskal Agentziaren webgunean (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Qualis Consultores enpresaren webgunean (www.qualisconsultores.es), dagozkion oinarrietan adierazitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENA. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 9a

